

2. TOKIKO EKONOMIA JASANGARRIA

SARRERA

Tokiko Ekonomia Jasangarriko Alorrak funtzio publikoaren garapen egokia kudeatzen du, eta populazioari buruzko tresnak zein prozedurak bideratzekoak zuzentzen ditu. Alorra, halaber, ahal den eraginkortasunik handiena lortzen saiatzen da, udal-baliabideen kudeaketan. Tokiko ekonomia sustatzen saiatuko da jasangarritasunaren ikuspegitik eta arreta berezia emanda gizarte-ekonomiaren eta ekonomia solidarioaren sektoreri zein tokiko merkataritzari, bai eta turismoa indartzeari ere.

a) Giza baliabideak:

- Plantilla organikoa.
- Lan- eta administrazio-kontratuak.
- Harremanak sindikatuen ordezkaritza-organoekin.
- Laneko arriskuen prebentzioa.
- Lan-osasuneko ikuskaritza.
- Nominak.
- Atezaintza.
- Aktak.
- Osoko Bilkurako Idazkaritza Nagusia.
- Hauteskundeei buruzko Legeak hauteskundeetarako udalei egozten dizkieten zereginak.

b) Ogasuna, Gizarte Ekonomia, Enplegua, Merkataritza eta Turismoa:

Ogasuna

- Aurrekontuei buruzko proiektu eta ikerlanak.
- Tributuen gaineko ikerlanak.
- Inbertsioei buruzko azterlanak.
- Baliabide ekonomikoak.
- Diruzaintza.
- Errentamenduak.
- Aseguruak.
- Finantzaketa.
- Kontu-hartzailetza.
- Tributuen kitapena.

- Diru-bilketa.
- Kontabilitatea.
- Ondarea.
- Inbentarioa.
- Erosketak.
- Diru-laguntzen kudeaketa.
- Europar Batasunaren inguruko aferen kudeaketa.

Gizarte Ekonomia, Enplegua, Merkataritza eta Turismoa

- Bultzada gizarte-ekonomiari eta ekonomia solidarioari.
- Enplegua eta enpresa berriak sortzeko proiektuendako laguntza, lanpostu berriak sortzeko prestakuntza-programa eta udal-merkatuetako marketin-plana.
- Merkataritza-erakargarritasunerako planaren garapena, merkataritza-jarduna sustatzeko auzo guztietan.
- Lankidetzazko proiektuak sustatu, koordinatu eta egitea, erakunde publiko eta pribatuekin batera, sektorea indartze aldera.
- Dinamizazio-kanpainak, merkataritzaren eta turismoaren arteko koordinazioa, informazioaren hobekuntza eta artisautzaren sustapena.
- Enpleguaren aldeko Toki Itunaren garapena hiriko merkataritzan.
- Barruti gotortua dinamizatzeko planaren sustapena.
- Turismoa sustatzeko neurriak planifikatu eta bultzatzea.
- Turismo-azpiegituren koordinazioa (turismoa erakartzeko guneak, aterpetxeak, etab.).
- Iruñeko turismo-eskaintza ezagutarazteko jarduketak.
- Azoka- eta biltzar-jarduna sustatu eta bultzatzea.
- Hiriko espazioa zabaltzea eta indartzea, turismo-xedeei begira.
- Barruti gotortuaren sustapena, kultur turismoaren produktu gisara.
- Iruña nazioko foroetan zein nazioartekoetan ezagutzera emateko jarduerak eta ekitaldien antolamendua.
- Gastronomiari lotutako ekitaldiak sortu eta halakoei laguntza ematea urte osoan zehar.
- Erromesei harrera egin eta kultur eta aisiako jarduerak antolatzea Donejakue Bidearen erakargarritasunari eusteko.

GIZA BALIABIDEAK

Udal-plantilla

2016an, **Iruñeko Udalaren Plantilla Organikoa onetsi zen**, estreinako aldiz 2011tik. Modu berrian taxutu zen plantilla, langileak antolatzeari dagokionez, aurreko urteetakoarekin alderatuta, udal-politika eta -jarduketa berrien beharrak asetzeko helburuz.

Hartara, **lan-eskaintza publikoa egin zen 2016rako, 17 lanpostu** hartu zituen: bederatzi udaltzain; bi, Zerga Ikuskaritzarako; hiru goi-mailako teknikari, Gizarteratzerako; bat, Esku-hartze Delegaturako; eta teknikari bana Partaidetzarako eta Euskararako. Estatu mailako aurrekontu-araudiarekin bat egin zen lan-eskaintza publikoa, eta legearen arabera ezarritako berriztapen-tasekin.

Plantillaren bilakaera

	2012	2013	2014	2015	2016
IRUÑEKO UDALA					
Funtzionarioak	987	987	936	901	890
Aldi baterako langileak	286	259	315	372	369
'HAUR ESKOLAK' ERAKUNDE AUTONOMOA					
Lanaldi osoa	117	117	117	150	149
Lanaldi murrizta	20	16	16	32	33
HIRIGINTZA-GERENTZIA	30	30	30	33	33
GUZTIRA	1440	1409	1414	1488	1474

Hautapen-prozesuak

24 hautapen-prozesu abiatu ziren 2016an. Haietako 16 urte horretan itxi ziren, eta gainerako 8ak 2017an itxiko dira. Hasi eta bukatu egin ziren ondoko hautapen-prozesuak, teknikari mailakoak: **ingeniari kimikoa** zein **Berdintasuna, Gazteria, Partaidetza eta Mugikortasuna** alorretakoak, baita **Mugikortasunerako** eta **Babes Zibilerako** laguntzaile-postuak zein **gradu-ertaineko tituluduna ingurumen-heziketan**

Joaquín Maya Musika Eskolarako irakasleak ere hautatu ziren: **klarinetea, akordeoia eta gitarra**. Gizarte Ekintzako eta Komunitate Garapeneko Alorraren barruan, ondokoak egin ziren: **enplegura bideratutako Aranzadi prestakuntza-proiekturako zuzendaritza; Pintura eta Hiri-altzarietako lantaldearen** pertsona arduraduna (Gizarte Enplegua) eta **Igeltserotzako**

monitorea. Halaber, **Mugikortasunaren eta Ingurumen-Heziketako Programen arteko koordinazioaren arduradunak** hautatu ziren.

2017an itxiko diren beste deialdi batzuk ere abiatu ziren: Lizentziadunak **Zuzenbidean** edo **Mikrobiologian**; gradu ertaineko tituludunak **Lorategietarako, saxofoi-irakasle bat, Euskara, Lorategiak eta Bulego Estrategikoak** zerbitzu-burutzez arduratze pertsonak edo **Hiri Kontserbaziorako arduradun orokor** bat.

Negoziaketa kolektiboa

Ordezkaritza sindikal berriak funtzionarioen lan-baldintzen inguruko hitzarmena, 2015ean hasi baitzen, negoziatzen jarraitzen du.

OGASUNA

2016ko aurrekontuak

Iruñeko Udalak 2015eko abenduaren 22an onetsi zuen 2016ko ekitaldirako Aurrekontu Orokora eta Bakarra. Hona hemen Udalaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuak:

Entitatea	Gastuak/Diru-sarrerak
Iruñeko Udalaren aurrekontua	198.162.853 euro
Hirigintza Gerentziaren erakunde autonomoaren aurrekontua	12.059.500 euro
Udaleko Haur Eskolen erakunde autonomoaren aurrekontua	8.605.612 euro

Inbertsioaren ikuspegitik, kredituak jaso dira (zenbatekoak milioitan daude) ekipo eta aplikazio informatikoetarako (1,1), Geltoki eraikinerako (0,3), Kale Nagusiko 20. zenbakia birgaitzeko (0,2), degradatuta dauden eremuetarako (0,5); transferentziak, Hirigintza Gerentziara (1,2); diru-laguntzak, etxebizitzak birgaitzeko (2,1); jarduketak, bide publikoetan, hiri-altzarietan eta berdeguneetan (3,4), bidegorrian (0,35), Animaliak Hartzeko Zentroko eraikinean (0,2), haur-eskoletan berritze-lanak egitea (0,2), ikastetxeak (0,7), Hiriartea-Ciudadela proiektua (Europar Batasuneko finantzazioarekin, 0,58), inbertsioak ibilgetuetan Udaltzaingoarentzat (0,8), Gizarte Ekintza (0,6), eta inbertsioak herritarrek parte hartzeko lokaletan (0,77).

Langileria-gastuen kapituluak 78,15 milioi euro jo zuen, eta zenbateko horretan behar adinako kreditua zegoen barnebilduta 2012an bertan behera utzitako aparteko ordainketaren % 50 itzultzeko (1,4 milioi, gutxi gorabehera). 2. kapituluko **Gastu arrunten** aurrekontua 72,7 milioikoa da.

4. kapituluan jasotako **Diru-laguntzen** harira, betiere alde batera utzita Udalari lotutako entitateak (Hirigintza Gerentzia, Haur Eskolak, PCH, ANIMSA, ASIMEC eta Iruñerriko Mankomunitatea) finantzatzeko ematen direnak, Udaleko alorrek kudeatutako diru-laguntzak ere badaude. Zenbatekoa, guztira, 23,2 milioi eurokoa da.

3. kapituluan (**Interesak**), aurrekontua prestatu da indarrean dauden konpromisoen kontratuei eta aurreikusten diren behar berriei jarraituz, eta zenbatekoa 2,6 milioi eurokoa da. Azkenik, 9. kapituluan (**Finantza-pasiboak**), zenbatekoa 6,1 milioi eurokoa da.

2016ko aurrekontu-aldaketak

Urtean barna, **hainbat aurrekontu-aldaketa** onetsi ziren, 2016ko **udal-partidetan igoera eragin zutenak**. Ekainean, 2015eko aurrekontuaren superabita erabiltzea onetsi zen; zehatz-mehatz, 12,9 milioi euro izan ziren. Horren ondorioz, batetik, ez zen kontratatu aurrekontuan aurreikusitako zorraren 5,5 milioi euro, eta, bestetik, aurrekontua 7,4 milioi euro handitu zen: 2,2 milioi euro hirigintzako kuotak ordaintzeko erabili ziren, aurrekontuan sartzeko baitzeuden; eta beste 5,2 milioi euro finantzei begira iraunkortasuna dakarten inbertsioetara bideratu ziren.

Azaroan, 0,7 milioi euroko kreditu-transferentzia bat onetsi zen; ez zuen aurrekontuaren zenbateko osoa handitzea ekarri, eta Udalak Kale Nagusiko 14.ean **erositako lokalen ordainketaren** zati bat aurreratzeko erabili zen. Era berean, Osoko Bilkuran diru-laguntza nominatiboak onetsi ziren, **degradatuta dauden eremuetako** jabeen komunitateak birgaitzeko. Horretarako, aurrekontua exekutatzeko oinarrietako 8. eranskina aldatu zen, eta diru-laguntzak hasierako aurrekontuan sartuta zeuden kredituen kontura emango dira.

Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak guztira 7,4 milioiko aldaketak onetsi zituen. Hortaz, **2016ko behin betiko aurrekontuak 205,6 milioi euro jo zuen**.

GRAFIKOA: BEHIN BETIKO AURREKONTUAREN BILAKAERA (milioi eurotan)

2012	2013	2014	2015	2016
199	192,4	191	198,8	205,6

2015eko kontu orokorra eta aurrekontuaren likidazioa: datu orokorrak

2016an, 2015eko aurrekontuaren likidazioa onetsi zen, bai eta ekitaldi horretako kontu orokorra ere. Iruñeko Udalaren tokiko sektore publikoak **14 milioi euroko aurrekontu-superabit edo finantzatzeko gaitasunarekin itxi zuen** 2015eko ekitaldia, kontabilitate nazionalaren ikuspegitik. Sektore publikoak hauek hartzen ditu barnean: Udala, Hirigintza Gerentzia, Haur Eskolak, PCH, ASIMEC, ANIMSA eta Gayarre Antzokia Fundazioa. 2015eko bukaeran, 13,4 milioi euroko diruzaintzako gerakin bateratua zegoen gastu orokorretarako; hau da, ia 3 milioi gehiago 2014an baino (10,5 milioi).

Batez beste, Udalak 29,8 eguneko epean ordaindu zien hornitzaileei 2015ean, ia-ia 2014an bezala (29,5 egun).

2015eko ekitaldia ixtean, **zorpetzea 94,7 milioi eurokoa** zen Iruñeko Udalaren tokiko sektore publiko osorako, egonkortasunaren legeari jarraituz zenbatuta. Zenbateko horren barruan, finantza-erakundeekin dagoen zor bizia sartzen da; alegia, 93,9 milioi; gainerakoa geroraturako ordainketak dira. Zorpetze hori (94,7 milioi euro) sektore publikoaren diru-sarrera bateratu guztien % 50,4 da; hots, legez finkatuta dagoen muga baino askoz txikiagoa (% 110) eta 2014koa baino txikiagoa (% 54,1).

Iruñeko Udalak 8,4 milioi euroko diruzaintzako gerakin positiboarekin likidatu zuen 2015eko aurrekontua gastu orokorretarako (13,4 milioi bateratu). **Udalaren aurrezpen gordina 24,2 milioikoa izan zen** (2014an, ordea, 21,5 milioikoa); hau da, % 15 igo zen, diru-sarrera arrunten igoera handiagoa izan delako funtzionamendu-gastuena baino. Aurrezpen gordina ekitaldiko diru-sarrera arrunten % 13,06 izan zen. Aurrezpen garbia 14,9 milioi eurokoa izan zen; hau da, diru-sarrera arrunten % 8,03.

Gauzatutako inbertsioak (6. eta 7. kapituluak) 15,4 milioi eurokoak izan ziren 2015ean (19 milioi, maila bateratuan). Hona hemen inbertsio horietako batzuk: **zaldainak ibaian, Fortius** proiektuarekin jarraitzea (Europako finantzazioarekin), jarduketak etxebizitzaren arloan (adibidez, **diru-laguntzak** etxebizitzak **birgaitzeko** eta nork bere **etxebizitza berritzeko**), jarduketak bide publikoan (zolatze-lanak), **hiri-igogailuarekin** hasia **Etxabakoitzen** eta berritze-lanak ikastetxeetan.

Diru-sarrera arruntek 185,3 milioi euro jo zuten (187,9 milioi euro bateratu). Diruzaintzan ez da tentsiorik sortu, eta ez da erabili kanpoko finantzazio-ituririk.

2015eko kontu orokorra eta aurrekontuaren likidazioa, herritarrekiko

2015ean, Iruñeko Udalak **guztira 987 euro gastatu zituen** maila bateratuan **biztanleko** ; horietatik, 844 euro gastu arruntetarako izan ziren, eta 97 euro, inbertsioetarako.

Guztizko gastutik % 47, hau da, 464 euro biztanleko, erabili zuen Iruñak komunitate-ongizatearekin zerikusia duten gastuak –hirigintza, ingurumena, hezkuntza, kultura, kirola eta abar– estaltzeko. Gastu horren atzetik dator segurtasunean, babesean eta gizarte-sustapenean egindakoa, zeina gastu osoaren % 22 izan baitzen, hots, 217 euro pertsona bakoitzeko.

Bestalde, **biztanle bakoitzeko diru-sarrera** 1.024 eurokoa izan zen. Diru-sarrera guztien % 28,78 udal-eskumeneko zergetatik etorri zen, eta horrek esan nahi du pertsona bakoitzak, batez beste, 295 euro jarri zituela. Presio fiskal osoa (zergak, tasak eta prezio publikoak) 453 eurokoa izan zen biztanleko, eta diru-sarrera guztien % 44,25.

Bestetik, modu bateratu batean hartuta, zerbitzuak eman, jarduerak egin eta jabari publikoa erabiltzeagatik kobratutako tasa eta prezio publikoen, ondasun higigarri eta higiezin salmentaren, ondareko diru-sarreraren eta aurrerakin zein maileguen itzuleren bitartez, 198 euro eskuratu ziren biztanleko. Transferentzia arruntek (Hiriburutza Agiria, Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetako partaidetza eta beste zenbait ekarpen) biztanle bakoitzeko eragindako diru-sarrera 495 euro izan ziren. Biztanleko beste 36 euro jaso ziren, kapital-transferentziak eta kapitaleko bestelako diru-sarrerak zirela medio.

Egindako gastu bateratuak 193,3 milioi euro jo zuen; hau da, % 0,6 handitu zen 2014ko likidazio bateratuaren aldean. **Diru-sarrera bateratuek 200,5 milioi euro jo zuten guztira**; hau da, aurreko urtean baino % 3,4 gehiago.

OGASUNA

Ordenantza fiskalak eta prezio publikoak

Ordenantza fiskalek eta indarrean dauden prezioen arauak **aldaketa txikiak** izan zituzten 2016an, aurreko urteetakoekin alderatuta. Kontsumorako prezioen indizea (KPI) hartzen da erreferentzia gisa herritarrei ematen zaizkien zerbitzuen tasak eguneratzeko. Bada, 2016rako ordenantza fiskalak nahiz prezio publikoak arautzen dituzten arauak aldatzeko proiektua prestatzen ari zenean % 0 ingurukoa zen KPIren aurreikuspena. Hori dela eta, ekitaldi horretan ez ziren aldatu Iruñeko Udalaren zergen, tasen eta prezio publikoen zenbatekoak, hauek izan ezik: **hiri-lurreko kontribuzioaren karga-tasa eta tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatik kobratzen diren zenbait tasa.**

Hiri-unitateetarako karga-tasa % 0,689 handitu zen zerga horren bilketa maila berean mantentzeko, eta, beraz, hiriko higiezin balio katastralaren pixkanakako galera arintzeko. Tokiko jabari publikoa erabiltzeagatik tasen harira, jaitsi egin ziren aurreko ekitaldietan merkatuko balioa zutenak edo horietatik gertu zeudenak, urte horretarako onetsitako diruaren lege-interesaren tasaren beherapenak izandako ondorioagatik (ehuneko puntu-erdia).

2016ko irailean, 2017rako **ordenantza fiskalak eta prezio publikoak arautzen dituzten arauak** aldatzeko proiektua onetsi zen. Hiri-lurren gaineko kontribuzioaren tasa % 0,65 handitu zen ekitaldi honetan, aurreko paragrafoan adierazitakoagatik. Hartara, hori izan ezik, zergak, tasak eta prezio publikoak ez ziren aldatu, KPIrako aurreikusitako jokabidea dela eta. Hala ere, tokiko jabari publikoa erabiltzeari loturiko tarifa batzuek nola-halako jaitsiera izan zuten, diruaren lege-interesak haien zenbatekoaren kalkuluan duen eraginaren ondorioz; izan ere, 2016an, interes hori % 0,5 jaitsi zen. Orobat, **etxez etxeko laguntza-zerbitzua emateagatik zenbait tasaren beherapena** ere onetsi zen, eta, erreferentzia moduan **OAEAP** erabili ordez (ondorio

askotako errentaren adierazle publikoa), **Gizarteratze Errenta** edo hori ordeztu dezakeen adinako laguntza bermatua erabiltzea erabaki zen.

Inbentarioaren balioa, guztira

2013. urtea	795.155.430,85 €
2014. urtea	799.380.216,96 €
Udalbatza aldaketa 2015/06/12	793.784.739,44 €
2015. urtea	809.318.719,81 €
2016. urtea	814.241.335,51 €

Udal-eraikin eta -lokal guztien balioa 314.129.782,98 €

	2013	2014	2015/06/12	2015/12/31	2016/12/31
Bulego Eraikinak	13.280.810,10	13.441.411,47	13.441.411,47	13.441.411,47	13.475.863,56
Merkataritza Eraikinak	6.772.371,57	6.772.371,57	6.772.371,57	6.772.371,57	6.772.371,57
Kultur edota Gizarte Eraikinak	52.259.033,69	52.986.252,78	52.986.252,78	53.087.764,89	53.151.693,54
Irakaskuntza Eraikinak	89.603.059,42	90.273.260,61	90.293.248,61	90.663.074,92	91.342.158,64
Kirol Instalazioak	42.427.751,20	42.503.220,72	42.503.220,72	42.511.497,02	42.631.056,95
Osasun Eraikinak	11.048.520,43	11.105.765,41	11.105.765,41	11.124.822,30	11.369.458,65
Beste hainbat zerbitzu	19.574.764,85	19.740.149,17	19.740.149,17	19.775.723,17	19.889.291,83
Zerbitzu Galeria	14.602.340,36	14.602.340,36	14.602.340,36	14.602.340,36	14.602.340,36
Etxebizitza	31.002.112,69	31.044.755,54	31.076.342,10	31.610.600,93	32.052.096,73
Aretoak	18.998.171,32	19.064.057,07	19.093.057,07	19.077.911,56	19.873.946,15
Trastelekuak	383.507,35	383.507,35	383.507,35	383.507,35	383.507,35
Garajeak	2.207.868,77	2.207.868,77	2.207.868,77	2.207.868,77	2.207.868,77
Kioskoak	1.803,04	21.629,37	21.629,37	21.629,37	21.629,37
Beste hainbat eraikuntza	6.312.383,05	6.221.499,51	6.221.499,51	6.251.711,48	6.356.499,51
ERAIKUNTZAK, GUZTIRA	308.474.497,84	310.368.089,70	310.448.664,26	311.532.235,16	314.129.782,98

Europak finantzaturako proiektuak

Ekimena/Programa Funtsa*	Proiektua	Gauzape- aldia	Aurrekontua Iruñeko Udala (€)**	Europako finantzazioa (€)
Deialdiak: VII. Esparru Programa IEE (Energia Adimentsua European)	FIESTA proiektua. Energia-auditoriak eta etxe-sektorean aholkularitza sustatzeko programa.	2014-2017	162.084	121.563
INTEREEG V A programa, Espainia Frantzia Andorra (POCTEFA) 2014-2020	CREACITY proiektua. Turismo-eskaintza erakargarria garatzea du helburu, hiriko gotorleku-ondarearen balorizazioari lotua, mugaz gaindiko Hondarribia-Baiona-Iruña eskualdearen baitan.	Proiektuaren gauzapena 2015 Bete da 2016-2019	384.617,31	250.001,25
INTEREEG V A programa, Espainia Frantzia Andorra (POCTEFA) 2014-2020	JACOB@CCES proiektuaren helburua da desgaitasuna duten pertsonen kulturaren eta ondarearen sartzeko dituzten desberdintasunak murriztea, eta haien gizarteratzea sustatzea.	Proiektuaren gauzapena 2015 Bete da 2016-2019	450.000	292.500
INTEREEG V A programa, Espainia Frantzia Andorra (POCTEFA) 2014-2020	FOOD-CLIMA proiektua. Mugaz gaindiko ikuspegitik abiatuta, hiriko elikadura-politikak landuko dira proiektuan, hiriko elikadura- sistemak hirietan klima-aldaketa arintzeko modu bat izan daitezkeen neurrian.	Proiektuaren gauzapena 2017 Bete da 2018-2020	593.000	385.450
INTEREEG V A programa, Espainia Frantzia Andorra (POCTEFA) 2014-2020	SMART-CAMPUS proiektua. Proiektuaren barruan, unibertsitate-campusa <i>smart lab</i> moduan hartzen da lurralderako. Horretarako, Nafarroako, Euskadiko eta Pirinio Atlantikoetako (Frantzia) hiru campus erabiltzea proposatzen da, hirirako eta lurralderako irtenbide adimentsuen proba- eremu eta laborategi moduan.	Proiektuaren gauzapena 2017 2018-2020	237.400	154.310
INTEREEG V A programa, Espainia Frantzia Andorra (POCTEFA) 2014-2020	SPAGYRIA proiektua. Mugaz gaindiko ekintzen bitartez, proiektuaren helburua kosmetikako produktu ekologikoak ikertzea eta garatzea da. Horretarako, bazkideek enplegu-zentro berezien, ikerketa-zentroen eta eraldaketa-zentroen sare bat sortuko dute, berrikuntzaren eta teknologiaren alorrean.	Proiektuaren gauzapena 2017 2018-2020	160.600	104.390
INTEREEG V A programa, Espainia Frantzia Andorra (POCTEFA) 2014-2020	KINTOA BARNA proiektua. Kalitateko eskaintza turistikoa garatu nahi da, Garazitik Iruñera arteko korridorearen natura- eta identitate-baliabideen balioestearekin, ondarearekin, denon historiarekin eta gastronomiarekin lotuta.	Proiektuaren gauzapena 2017 2018-2020	100.043	65.027

MERKATARITZA

Merkataritza dinamizatu eta sustatzeko kanpainak

Urtean zehar, Iruñeko Udalak hainbat kanpaina bultzatzen ditu. Kanpaina haietakoren batek hamar urtetik gorako ibilbidea egina du. Proposamen bakoitzak bere data zehatzak izaten ditu, eta, askotan, egun seinalatuak erabiltzen dituzte merkataritza-proposamenak egituratzeko. Aurten, urrian, **Bertako Produktuen I. Astea** antolatu zen, hemendik aurrera urtero egiteko asmoz.

Pamplona Stock aukeren Feriak **hamarkada bat bete zuen** eta, urteurren horren inaugurazio-ekitaldia Enrique Martín Osasunako entrenatzailearen kontu izan zen. Iruñeko Udalak antolatzen du, Nafarroako Merkatarien Federazioarekin eta hainbat merkatori-elkarterekin elkarlanean: Alde Zaharra, Zabalgunea, Iturrama, Martín Azpilkueta, Donibane, Ermitagaña eta Mendebaldea, Mendillorri eta El Salvador-Arrotxapea. 2016ko hamargarren edizioan 22.000 bisitari baino gehiago jaso zituen. Hala, martxoaren 3tik 6ra, 43 dendak parte hartu zuten Baluartan. Antolatzaileek haur-jokoak eta DJ baten emanaldia eskaini zituzten animazio osagarri gisa.

2008az geroztik, **Liburuaren eta Lorearen Eguna** ospatzen da (apirila), Letren Nazioarteko Egunarekin bat, eta Diego de Haro Liburu-saltzaileen Elkartarekin elkarlanean. Aurreko urteetan bezala, Karlos III.aren etorbideko oinezkoendako eremuan egin zen, Orreaga etorbidearekiko elkargunean. 17 liburu-dendak (2015ean baino hiru gehiago) % 10eko deskontuak eskaini zituzten, eta, bezeroen artean, 4.000 lore banatu zituzten; hau da, aurreko urtean baino 1.200 gehiago. Iruñeko Udalak José María Romeraren “Pamplona-Iruña, imágenes y palabras” liburuaren luxuzko argitaraldiaren 1.100 ale banatu zituen herritarren artean; 1996an argitaratu zen eta 2006az gero deskatalogatuta dago; Iruñeko 14 egileren testu eta irudiak biltzen ditu. Inbentariatze-lanetan udal-biltegietan aurkitutako materiala herritarren esku jartzeko ekimenaren barruan egin zen.

“**Merkataritzarekin, hiria, hiriago**” ekimenak (ekaina-uztaila) hamar urtetik gora darama abian, karrika beste merkataritza-erakarren baten gisa nabarmentzeko, eta, horretarako, hainbat jarduera programatzen dira, merkataritzaren presentzia hiriaren bizitzan sustatzeko eta bezeroen fideltasunari eusteko eremuko establezimenduarekiko. Ekain osoan eta uztailaren lehen bi egunetan, jende guztiarendako jarduerak eskaini ziren, hala nola puzgarriak, haurrendako lantegiak, dastatzeak edo musika. Horren baitan, Alde Zaharrean, ‘**Gau Zuri Gorria**’ ekimena egiten zen; hau da, ia 100 dendak moda-desfileak, tailerrak, kalejirak, kontzertuak eta deskontu bereziak eskaini zituzten eta gaueko hamarrak arte zabalik egon

ziren. Horrez gain, bestelako ekintzak egin ziren karrika festaz betetzeko. Udalak Pamplona Stock-eko merkatarien elkarteekin batera antolatu zuen programa hori.

Hiru Burguen Erdi Aroko Azoka (iraila) irailaren 9an, 10ean eta 11n egin zen, Batasunaren Pribilegioa ospatzeko ekitaldien barruan. 120 postu paratu ziren Alde Zaharreko karriketan, txokolateak, hestebeteak, ardoak, gaztak, opilak, barkilloak, marmeladak edota sendabelarrak eskaintzeko. Horrekin batera, antzinako lanbideen erakusketa egin zen: ontzigileak, zeramikagileak, kopistak, zilarginak, lurringileak, zurginak edo zapatariak. Halaber, lore, forja edo musika-tresnen lantegiak, falkoneria-erakustaldi bat eta ardi-mozte saioak egin ziren. Eskaintzaren osagarri, San Frantzisko plazan, Erdi Aroko taberna bat eta zuzeneko emanaldi bat izan ziren. 2016an, Nafarroako Artisau Elikagaien Elkarteari zegokion bide publikoa erabiltzea ekitaldirako muntatze-lanetarako.

“Zabalgunea la Nuit” ekimenak (iraila) ‘Flower Power’ mugimendua aukeratu zuen bere 7. edizioaren gunetzat, eta beste urteetan baino lehenago antolatu zen, urrian izaten baitzen. Iruñeko Udalak eta Zabalguneko Merkataritza Elkartek ia 100 establezimendu bildu zituzten irailaren 30ean, arratsalde-gau batez gaueko 23:00ak arte zabalik, eta bezeroei oparitxoak eta deskontu bereziak eskaini zizkieten.

2016an, lehen aldiz antolatu zen **Bertako Produktuaren Astea** (urria): bertako produktuen merkatu handi bat, Iruñeko erdialdean kokatua. Erakusketa, salmenta eta dastatzea izan ziren, eta prestakuntza-pedagogia ekintzak izan ziren, bertako produktuei buruzkoak eta elikadura-subiranotasunarekin eta hark erosketa publikoan dituen eraginekin lotuak. **Bertako Produktuaren I. Astea** honako hauekin batean elkarlanean programatu zen, hitzarmen baten bidez: Artisau Elikagaien Egileen Elkartea, NNPEK, Gurbindo Etxea-Fundagro, INTIA eta harakinen gremioa. 2016ko urriaren 5ean, 6an, 7an, 8an eta 9an egin zen, eta, hemendik aurrera, urtero egin nahi da, eta jarduera finko bihurtu Iruñeko egutegi sozial, kultural eta gastronomikoan.

Bost egunez, hitzaldiak, txostenen aurkezpenak, dastatzeak eta mahai inguruak izan ziren udal-egoitzetan; eduki teknikoak eta orokorrakoak konbinatu ziren; halaber, Gazteluko plazak bertako produktuaren kontzeptuarekin lotura duten 70 ekoizle bildu zituen, eta 400 m-ko karpa bat, dastatzeak, animazio-jarduerak eta lantegiak egiteko.

2016ko azaroan, **‘Black Friday’** ekimenaren hirugarren edizioa egin zen azken ostiralean, ia 200 establezimendurekin, bezeroak deskontu nabarmenen bidez erakartzeko.

Eguberrietako Kanpaina 2016-2017

Beste behin ere, Eguberrietako kanpaina **Gabonetako argiztapena** piztearekin batera abiatu zen, azaroaren 29an, San Saturnino egunean. 2016an, diseinua Blachere Iluminación España S.A enpresarena izan zen, eta argiak urtarrilaren 6ra arte egon ziren piztuta. Karriketan, 172

arku eta, kale-argietan, 140 apaingarri jarri ziren, eta argiztapen berezia bost plazatan: Merindadeen plaza, Vianako Printzearen plaza, Askatasun plaza, Gazteluko plaza eta Udaletxe plaza. Horrez gain, Karlos III.a etorbideko oinezko pasealekuan, bi eguberri-ARBOLA handi jarri ziren.

Argiarekin batera, dendetako apainketa aipatu behar da; hein batean, Iruñeko Udalarenak diren 379 eguberri-irudirekin egin zen. Era berean, 378 eguberri-apaingarri zintzilikatu ziren Zabalgunean eta Martín Azpilkueta eremuan.

Eguberrietako Feriak berriz ere ireki zituen ateak, abenduaren 16tik 2017ko urtarrilaren 8ra Artisauen 27 postu, txurro-denda bat eta lanbideei buruzko haur-lantegiak izan ziren ekimen berri batean, Iruñeko Udalak eta merkatarien elkarteek elkarlanean lantzen dituzten hiriaren merkataritza-animaziorako proposamenen barruan. 2016an, familiek bi karpatan izan zuten hitzordua (Gazteluko lazan eta Karlos III.a eta Orreaga etorbideek bat egiten duten lekuan); mota guztietako jardueretarako prestatuta zeuden, eta 30.000 eta 20.000 lagunek bisitatu zituzten, hurrenez hurren.

Gune horietan, gainera, Alde Zaharreko 'Eguberrietako ibilaldi gozoak' eta Zabalguneko 'Une gozoak' izan ziren, honako hauen eskutik: Garrarte Artisau Gozokiak, Beatriz Pastak, La Turronería, Manterola Etxea, Torrano Gozotegia eta Goya Konfiturak. Espero bezala, 150 lagunek hartu zuten parte. Beste auzo batzuetako merkatariek ere Olentzerorekin, txokolatearekin eta gaztaina erreekin lotutako jarduerak antolatu zituzten: Iturrama, Arrotxapea, Martín Azpilkueta eta Mendillorri.

Udal-merkatuak

Urtean barna, hainbat prestakuntza-, sustapen- eta animazio-jarduera egiten dira Ermitagañako eta Zabalguneko merkatuetan. Otsailean, **erosketa-txekeen** bidezko sustapen-kanpaina bat egin zen (10 euroko 225 txekeren zozketa). Martxoan eta azaroan, **Merkatuen Erruleta** jokoa egin zen. Hala, bezeroen artean, merkatuetako espezialitate guztietako produktuak zozketatu ziren. 2016ean, zazpigarren edizioa egin zen.

Apirilean, "**Ahogozatu Udaberria**" proposamena egin zen; zehazki, garaian garaiko produktua sustatzen da, elkartasunezko xede bat gogoan: hots, euro batean ardoa eta pintxo bat dastatu, eta biltzen den dirua xede sozialetara bideratzen da. Ekimena urrian ere egiten da, onddo- eta ziza-erakusketa bati lotua, "**Ahogozatu udazkena**" izenburupean. Bi edizioen artean, 900 pintxo dastatu ziren, guztiak ere merkatuetako produktuekin prestatuak. Bildutako dirua (2.000 euro inguru) ANASAPS elkarteari eman zitzaion, besteak beste.

Eta, maiatzean, **Merkatuko III. Errezeta Lehiaketarako** deialdia egin zen, aurten Nafarroako haragiaren inguruan egin ere. Hiru sari eman ziren, hots, merkatuetan gastatzeko hiru txartel,

200, 150 eta 100 eurokoak, parte hartu zuten 10 bezeroen artean. Horren ondotik, 450 laguntzako dastatzea prestatu zen, “Masailak” errezetarena.

Bestelako hitzorduak merkatuetan. **Uda iristean**, 4.000 lore eman zitzaizkien bezeroei merkatuko postuetan eta, irailean, berriz, **eskolako itzulera** kanpainak 9 eta 12 urte bitarteko haurrak izan zituen protagonista: elikadura osasungarriari eta bertako produktuei buruzko bi lantegi egin ziren. Urtea **Eguberrietako kanpainarekin** bukatu zen: 11.800 egutegi banatu ziren, eta haurrentzako tailerrak egin; eguberriak zuten gaitzat tailer horiek, eta 40 haurrek hartu zuten parte.

Laguntza Iruñeko ekintzaile eta enpresei

2016an, hitzarmena sinatu zen Iruñeko Udalaren, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Berrikuntza eta Enpresen Europar Zentroaren artean, Iruñeko ekintzaile eta enpresei laguntza bideratzeko. 2016ko aurrekontua 295.000 euro izan zen. Udalak % 47,46 eman zuen.

Hitzarmenaren lehen puntu gisa, **CEINek Iruña erdialdean duen egoitzak** bere horretan segituko du (Leire kalea, 20).

Egoitza horretan, **Iruña Ekintzailea - Sektore kultural eta sormenezkoa Programa** (200 ordu) garatu zen, *Learning by doing* eta *LEAN* metodologietan oinarrituta. Prestakuntza-programa horretan, ekintzaile-espirtua duten **16 laguni** eman zitzaien laguntza, negozio-idea bat bilatzeko eta garatzeko; testuinguru horretan, **14 enpresa-iniziatiba** berri garatzen hasi ziren hirian, besteak beste: gizarte-sare bat oso soziala, tokiko coworking bat, arte-galeria erlazional bat, hileta zibil eta kulturalera zerbitzu bat edo musika-terapiarako kontsulta bat. Erabilitako metodologiak saio praktikoak proposatzen zituen parte-hartzaileekin eta mentoreekin (NICDO; Nafarroako Telebista eta Unibertsitateak). Gainera, programa horren barruan, bi jardunaldi antolatu ziren, bat ekainean eta beste bat irailean. “Oraina, geroa eta eraldatzeko gaitasuna kultur eta sormen industrietan”. Guztira, 290 lagun joan ziren bi jardunaldi horietara.

“**Denda naiz - Soy Comercio**” programa garatu zen; proiektuak azeleratzeko ekimen bat zen, izaera berritzailea duten negozio-ideiak sustatu eta Iruñean negozio berri bereizleei laguntza emateko; 2016an, **16 ekintzailek** hartu zuten parte, eta, ekainean hasita, sei hilabetez 80 orduko prestakuntza egin zuten Learn-start-up eta mentoring metodologia erabilita. Horrez gain, bakarkako tutoretza-saioak jaso zituzten, eta 1.250 euro, programa babesten duen Nafarroako Rural Kutzak emanak. Hortik, **8 proiektu** sortu ziren, hala nola arropa-dendak, kafetegiak, gaztandegi bat eta moduluko altzari ekologikoen denda bat. Hona aurtengo establezimendu laguntzaileak: Ayestarán, Berlín Moda, Cachet, Zuazu harategiak, Garrarte, Urtoki herbodietetika, La Colmena, La Mandarra de la Ramos, Txirrintxa, Katuzarra, San Domingoko merkatua, Mi Cocina, Mundoraintxe, eta Sahne y Lola.

CEIN-Iruñeak, gainera, beste **96 ekintzaileri eman zien arreta**, Iruñeko Udalak Ekintzaileei Arreta emateko duen Bulegoak eta Udaleko beste atalek hara bidaliak.

CEIN-Iruñeak beste orientazio-jarduera batzuk egin zituen. Batetik, enpresa-planak diseinatzeko bost **lantegi praktikotarako** (20 ordu) deialdia egin zuen, Ekintzaile gazteentzako udal-laguntzeen deialdira proiektuak aurkeztu zituztenentzat. 10 lagun etorri ziren. Bestetik, **“Trebatu”** proiektuan lagundu zuen, kontratazio publikoari buruzko 120 minutuko lantegi batekin, Kondestablearen Jauregian (abendua). Ekintzaileak zituen helburu, batez ere sormen-eta kultura-industrietakoak, eta Santiago Lesmes Zabaleguik eman zuen (Zuzenbidean lizentziatua eta klausula sozialetan eta kontratazio publikoan aditua). Prestakuntza horretan, 25 lagunek hartu zuten parte.

Iruñeko Merkataritzaren Mahaia

2009an, Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak Iruñeko Merkataritzaren Mahaia sortu eta abian jartzea erabaki zuen; hau da, aholkularitza- eta informazio-izaerako foro bat da, merkataritza bultzatu eta sustatzeko ekintzak aztertu eta proposatze aldera, eta, era berean, interes orokorreko hainbat kontu aztertze ere. Udaleko hainbat zuzendarik nahiz teknikarik eta udal-talde politikoetako ordezkariak osatzen dute, bai eta merkataritzako kideek ere (eremuan eremuko merkataritza-elkarteak, udal-merkatuak eta gremioak).

2016an, hiru aldiz bildu zen honako hauek lantzeko: arlo horretako aurrekontua eta udal-planifikazioa, merkataritzagune handiak, jardueren proposamenak 2017rako edo Merkataritza Plan Estrategikoaren plegurako egin litezkeen ekarpenak (sortze-prozesuan). Urtero bezala, foru horretan, 2016. urtean gauzatutako ekintzen balorazioa egin zen, eta udazkeneko eta Eguberrietako kanpainen programazioaren eta edukien aurrerapena eman ere.

Ikerketak

2016an, **bi ikerketa egin ziren**: Iruñeko eta Iruñerriko merkataritza-eskaerari buruzko bat eta hirian dagoen merkataritza-eskaintzari buruzko beste bat. Hautaketa-prozesu irekiak egin eta gero, honako enpresa hauek egin zituzten ikerketak: CIES S.L. eta Auren Consultores SP, S.L.P., hurrenez hurren. Bi ikerketetako emaitzek egitekoa den Merkataritza Plan Estrategikoa diseinatzeko balioko dute. Plan horrek 2021. urtea du helmuga eta markatuko du hiriko sektore hori suspertzeko zer lerro estrategikori jarraitu behar zaien eta zer neurri ezarri behar diren.

Iruñeko eta Iruñerriko merkataritza-eskaerari buruzko ikerketa honako hauen bidez egin zen: 2.410 inkesta, banakako elkarrizketak, ezaugarri desberdineko pertsonen osatutako eztabaida-taldeak eta adituen talde bat. Honako hau zuen helburu: normalean erosketak egiten dituzten Iruñeko eta Iruñerriko pertsonen erosketa-ohituren eta -arrazoien berri izatea; zona bakoitzaren merkataritza-erakargarritasuna ezagutzea, eta Merkataritzagune handiek erosketa-ohituretan nola eragiten duten jakitea; eta eskaera nola eboluzionatzen ari den ere.

Merkataritza-eskaintzaren inguruko ikerketak hiriko dendetan egindako 690 elkarrizketa, eztabaida taldeak eta adituen talde bat izan zituen oinarri. Honako helburu hau zuen: sektorearen jokaera sakon ezagutzea, haren eboluzioa eta joerak, eta merkataritza elektronikoak nahiz merkataritzagune handiek hiriko merkataritza-sektorean duten eragina aztertzea. Ikerketak inguruko hirietako hurbileko merkataritzaren eboluzioarekin lotutako jardunbide egokiak identifikatu nahi zituen. Hala, honako hauek aztertu zituen: merkataritza-eskaintza, haren egitura, enpresa-ehuna, ingurune urbanistiko-komertziala eta tokiko merkataritzaren beharrak.

Udal-arauak

Iruñeko Udalak, Osoko Bilkuran, hasiera batez onetsi zuen **Merkataritza Ez-egonkorra arautzen duen Ordenantzaren** 17. artikulua 2.2 zenbakiko lehenengo paragrafoaren aldaketa. Aldaketaren testu osoa: “2. Azoka horietako salmenta postuak antolatzerakoan arau hauek jarraituko dira: Azokaren funtzionamendu ordutegia 09:00etatik 14:30era izan da.”

Aldaketak ez zuen alegaziorik izan jendaurreko erakusketa-aldian, eta behin betiko onetsi eta abenduaren 31n sartu zen indarrean.

TURISMOA

Iruñeak turismorako **ildo estrategikoak aurkeztu zituen 2016an, Iruñeko Udalak etorkizunean izanen duen Turismo Plan Estrategikoari** oinarria emateko. Hainbat arlo landu ziren, hala nola hiria kalitatezko jomuga gisa nabarmentzea, turismoa sanferminez haratago erakartzea eta hainbat segmentu lehenestea turistendako produktuak eskaintzeko: gastronomia, kultura, osasuna eta biltzarrei loturiko turismoa, besteak beste. Horren haritik, Osasun Turismoa Garatzeko EkintzaPlanean ezarritako norabideak lantzen segitu zen, eta RENFErikiko akordioari eutsi zitzaion, hirian egiten diren biltzar eta ekitaldietako parte-hartzaileentzat.

Sanferminei dagokionez, gainera, **azterlan bat egin zen festek sare sozialetan zer irudi duten aztertzeko**, eta SF Pamplona App-a eguneratu zen; 31.000 deskarga baino gehiago izan ditu hiru urteko funtzionamenduan. 2016an, **Ernest Hemingwayren *The Sun Also Rises* eleberria argitara ematearen 90. urtemuga** bete zen. Efemeride horretan oinarriturik, Udalak argazki-erakusketa bat eta bisita gidatuak prestatu zituen, besteak beste.

Plangintza osoa sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzan oinarritu zen, kohesio handiagoa lortzeko eta hiriko turismoarekin lotutako sarea indartzeko. Halaber, mugaz gaindiko lankidetzaproiektuak mantendu ziren, hala nola **Creacity** (Baiona eta Hondarribia hiriekin) eta **Jacob@ccess** (Jacarekin eta Frantziako Iholdi-Oztibarreko Elkargoarekin). 2016an, **Jesus**

eta Maria erromesen aterpetxearen zerbitzu-gutuna onartu, Iruñeko Gotorlekuen Interpretazio Zentroaren kudeaketa esleitu eta Turismo Bulegoaren kudeaketa luzatu zen, bai eta bulego horrek Nafarroako Turismo Bulego gisa duen eginkizuna ere.

2016an, % **12,9 bisitari gehiago artatu zituzten** Udaletxe plazako Turismo Bulegoan: 157.354 guztira.

Etorkizuneko Turismo Plan Estrategikoa Diagnosia eta jarduketa-ildoak

2016an, Iruñeko Udalak **Turismo Plan Estrategikoaren** prestaketa atera zuen lehiaketara, behin egoerari buruzko diagnosia egin ondoren. Lizitazioan dozena bat enpresa aurkeztu ziren, eta, azaroan, Sepinum & Meridiano Zero ABEEari esleitu zitzaion, 63.001 euroan.

Etorkizuneko planaren funtsezko ildoak jendaurreko jardunaldi batean aurkeztu ziren Kondestablearen Jauregian. Lana 2017an zehaztuko da eta hainbat gauza aurreikusi behar ditu, hala nola merkatuari/produktuari dagokion arloa (ezberdintzea) zein marka eta komunikazioa (posizionamendua) eta gobernantza-estrategia (lidergo publikoa eta sektore pribatuarekiko elkarlana); horrez gain, zeharkako berrikuntza- eta jasangarritasun-estrategia jorratuko da zehaztutako jarduketa bakoitzerako.

Sanferminen irudia

Hiriko mugarri turistikoetako bat sanferminak dira. Iruñeko Udala, Nafarroako Gobernua eta turismo-sektore pribatua kezkaturik zebiltzan, haien ustez sanferminen irudi orokorra okertu egin zelako, eta, zehatzago, hedabideetan nahiz sare sozialetan emaniko irudiagatik. Gauzak horrela, gaia aztertzea erabaki zen.

Udalak FUNTSAK eta LIS-SOLUTIONS enpresak kontratatu zituen 5.929 euroan, *online* hedabideak ardatz hartuta azterlan bat egiteko, Twitter, Facebook eta Google Trend aztertuta bereziki, eta *Sanferminak* markaren nazioarteko posizionamendua identifikatzeko helburu nagusiarekin. Horretarako, Iruñeko Udalak enpresekin hainbat bilera egin, eta zenbait material prestatu ziren.

Deialdia turismo arloko elkarteei laguntzak emateko

2016an, **turismo arloko zazpi entitatek jaso zuten Udalaren diru-laguntza**, Iruñeko hiria turistendako jomuga gisa sustatzeko ekintzak egite aldera (guztira, 47.912 euro bideratu ziren, hasierako 60.000 euroko kontu-sailetik). Deialdiak denetariko jarduerak hartzen ditu bere baitan, hala nola sustapen- eta publizitate-ekintzak, turismo-produktu berriak diseinatzeko gastuak, jardunaldiak, lehiaketak, *fam trip* saioak, bilera profesionalak eta antzeko ekitaldiak, den-dena hiria turismo-jomuga gisa garatzeko. Guztira, 31 jarduera egin ziren.

SICTED (Espainiako Turismo Helmugen Kalitaterako Sistema Integrala).

SICTED proiektuak **ez zuen jarraitu** 2016an, 2007tik indarrean egon ondoren. Iruñeko eta Iruñerriko establezimenduen eta turismo-enpresen kalitatea sustatzen zuen. Iruñeko Udalak proiektua bertan behera utzi zuen, hainbat arrazoi izan zirela medio: ekimena geldirik zegoen, eta turismo-sektore pribatuak ez zion harrera handirik egin; gainera, proiektuak ez zuen jo Produktuaren Klub bat egitera, establezimenduen sustapena eta merkaturatzea hobetze aldera.

Turismoaren Behatokia

2016an, Iruñeko Turismoaren Behatokiaren lan-sistema birplanteatu zen. Ordura arte, hiriko eskaintza eta eskari turistikoari buruzko informazioa jasotzen zuen urtero. 2016an, Behatokiaren azterlanak bertan behera utzi ziren, Turismo Plan Estrategikoaren barruan tresna erabilgarri eta arinago bat identifikatzeko.

Iruña, jomuga turistiko gisa: MICE eta Osasun Turismoa

Iruñeko Udala **Spain Convention Bureau biltzar-hirien sarean** sarturik dago eta lankidetzan ari da Nafarroako Gobernuarekin, Nafarroako Biltzar Jauregia eta Auditorioarekin (Baluarte) eta sektore pribatuko beste erakunde batzuekin, Iruña eta Nafarroa **biltzar-, bilera- eta pizgarri-turismorako** jomuga gisara hedatzeko eta sustatzeko. Udala Nafarroako Turismo Kontseiluaren **Turismo MICE** batzordean sarturik dago. Hori Nafarroako Gobernuko organo aholku-emaila bat da.

Komunikazio eta loturei dagokienez, 2016an, Iruñeko 11 biltzar edo ekitalditarako eskatu zitzaizkion deskontuak RENFERi, eta unean uneko bi ekintzatan eman zen laguntza: *I love febrero* eta *El tren del chupinazo*. Izan ere, 2013az geroztik, Udalak eta RENFEk hitzarmen bidez sustatzen dute hiria elkarrekin MICE jomuga gisa; horrekin bat, sustapen-bideak eta bidaia-deskontuak egokitzen dira *Iruña jomuga* gisa definituta dauden ekitaldietarako.

Proposamen horren baitan, 2016an, Udalak IBTM Bartzelona **nazioarteko azoketan** parte hartu zuen, eta SBCK eta Turespañak Bilbon antolaturiko jardunaldi nazional eta nazioartekoetan. Udala, halaber, **bi workshop** espezializatutan izan zen: Iberian MICE Forum (Alacant) eta M&I (Madril). 2016an, halaber, **fam trip** bat egin zen, T&C agentzia mexikarrarekin.

Ekintza orokor horiez landara, Udalak bi **sektoretan** jardun zuen ahalegin handiz: **osasun-turismoan** eta turismo gastronomikoan. Lehenari dagokionez, 2013tik aurrera, Iruñean Osasun Turismoa Garatzeko Ekintzari jarraitzen zaio, Zinkean enpresak eginda. Aurreikuspenen arabera, kalitate-estandarrei lotutako produktu bereizgarriak sortuko dira, sustatuko den marka bereizgarri baten bidez. 2016an, Iruña **hainbat azokatan** izan zen, FITUR Salud (Madril) azokan, adibidez, eta sektoreko beste batzuetan, hala nola MITT Mosku, MedShow eta Workshop MTEC Kiev izenekoetan. Horrez gain, **fam trip** bat egin zen, Terramar Group-ekin, eta **presstrip** bat, PRESS TOUR taldearekin.

Iruña “**Saborea España**” proiektutik atera zen, Osoko Bilkurak 2016ko abenduaren 1ean erabakitakoarekin bat.

Turismoa dinamizatu eta sustatzeko kanpainak

Udan etortzen da turistarik gehien Iruñera, eta alor honek aisia- eta kultura-jarduerak, bisita gidatuak, ardo- eta olio-dastatzeak, kontzertuak eta kaleko ekitaldiak egiten ditu, baita ekitaldi nabarmenak ere: *Harresiak kandelan argipean*, adibidez.

Nafarroako **ardo-dastatzeen** hamargarren edizioa egin zen 2016an, Descalzos kaleko udal-eraikineko erakusketa-gelan (2. solairua). 2016ko 15 saioetan, guztira 750 lagunek parte hartu zuten, bost ardo dastatzeko: bi zuri, gorri bat eta bi beltz, guztiak ere hiru gazta motarekin uztartuak: Idiazabal, Idiazabal ketua eta Erronkari. Ekitaldia elkarlanean egiten da Reyno Gourmetekin, Kontseilu Erregulatzaillearekin eta upategi parte-hartzaileekin. Abuztuan, gainera, **olio-dastatzeen** bigarren edizioa egin zen. Guztira, 235 lagunek parte hartu zuten; hau da, leku guztiak bete egin ziren.

Udalak **bisita gidatuak** proposatzen dituen urtaro bakarra ez den arren, 2016an egindako lau ibilbide-modalitateetatik hiru udan eskaini ziren, Creacity programaren barruan. *Harresien zaindariak* antzerki erako ibilaldia da familientzat, eta 146 lagunek parte hartu zuten, lau saiotan. *Iruñearen harresien barruko historia* eta *Bidaia bastioien barnealdean zehar* ez dira bakarrik udarako, abenduko zubiak ere eskaintzen baitira, eta azken modalitatea, Aste Santuan ere bai. Urte osoa kontuan hartuta, modalitate historikoan 1.709 lagunek eman zuten izena, eta bastioietako bisitetan, berriz, 1.621. Ibilbide horien osagarri, Zitudelara ere bisita gidatuak egin ziren Eguberrietako oporretan; zehazki, 161 lagunek parte hartu zuten. Guztira, 2016 osoan, lau ibilbide-modalitate gidatuetan, **3.637 leku bete ziren**.

Halaber, seigarren urtez jarraian, ***Harresiak kandelan argipean*** udako programa egin zen. Proposamena, berriz ere, Iruña, Baiona eta Hondarribia arteko **Creacity proiektuaren** baitan gauzatu zen, mugaz gaindiko lankidetzak sustatzeko, eta EGEF erakundeak diruz lagundurik. Hiru hitzordu programatu ziren abuztuko larunbatetan, 21:00etatik 23:30era. Agertokiak hainbat kokaleku izan ziren, Iruñeko Gotorlekuen Interpretazio Zentroaren eta Nafarroako Errege Artxibo Nagusiaren artean.

Proposamenaren helburua da harresi-barrutiaren alde baten balioa nabarmentzea eta inguru hori dinamizatzea, eta iruindarrei nahiz bisitariei eskaintzen zaie, hiriko gotorlekuetako bi tarte bestelako argiarekin ikusteko. Toki horietan emanaldiak egin ziren, eta hiru jaima paratu ziren, Caballo Blancok eta Nafarroa J.D. duten ardoek eskainitako tapak dastatzeko. Ekimen horrek bi lehiaketa publikotan aurkeztera behartzen du, eta Caballo Blanco tabernak lehen lehiaketa irabazi zuen: ostalaritza-zerbitzukoa, hain zuzen ere. Beste lehiaketa laguntza teknikora eta sorkuntzara bideratua dago; hau da, apainketa, azpiegiturak muntatzea ostalaritza-postuetarako, kandelak jartzea, piztea eta jarduera gainbegiratzea. El Cubo Blanco eta Barrio

de los Artistas izenekoei esleitu zitzairen. Hiru esleipendunek 2015eko esperientzia errepikatu zuten.

Urte bukaeran, Udalak ekitaldi sorta bat egin zuen, Ernest Hemingway idazle iparramerikarraren *The Sun Also Rises* eleberria argitara ematearen 90. urtemugaren karira. Kazetari gaztea Iruñean 20ko hamarkadan; irudi hori izan zen **Recuperando a Hemingway-Hemingway Bidaide** jarduera-zikloaren ardatza. Ekimena Madrilen ere aurkeztu zen, eta hainbat ekitaldi barnebildu zituen, hala nola erakusketa biografiko bat, bisita gidatuak, idazlearen bizitzari buruzko dokumentala eta solasaldia, eta mahai inguru bat nazioarteko berriemaileekin. Iruñeko Udalak ekimenari buruzko 3.000 orri-markatzaile banatu zituen herritarren artean, eta **Guía Hemingway. La Fiesta, Sanfermines y Pamplona** (Victus Rorat, 1999) gidaren 500 ale. Udalaren asmoa baita jendearen eskura jartzea udal-biltegietako inbentariatzeko-lanetan aurkitutako materiala, eta banaketa hori ekimen horren zati bat da.

Bestelako animazio-ekitaldiak Creacity barruan

Creacity proiektua Iruña, Baiona eta Hondarribia arteko mugaz gaindiko lankidetzaproiektua da, Pirinioetako Lan Elkartearen baitan, eta proposamen berriak egiteko bidea ematen du Iruñeko turismo-programazioaren barruan. 2016an, izan ere, horixe izan zen Iruñeak FITUR azokara eramandako turismo-apustuaren ardatza: hots, gotorleku-ondarea elkarrekin balorizatzea kultur turismoko eta arte sorkuntzako ekimenen bidez, betiere berrikuntzan oinarrituta.

Apirilean, hiru egunez, **Ozeanoz gaindiko I. Topaketa Gastronomikoa** egin zen hirian. Esparru horren baitan, Ozeanoz gaindiko I. Frijitu Topaketa egin zen, Brasil, Kolonbia, Iruña eta Hondarribiko sukaldariekin, Sergio de Andrés telebistako sukaldariak aurkeztua, eta Burlatako ostalaritza-eskolako ikasleek ekitaldiaren antolaketan lagundua. Gainera, ikastetxe hori bisitatzeaz gain, bost sukaldarik 100 pintxo prestatu zituzten bost sukaldetan, ozeanoz gaindiko frijituz osaturiko bermut bat aurkezteko.

Udaleko hainbat zuzendarik eta teknikarik **Ondareari eta gastronomiari buruzko Foro** batean parte hartu zuten apirilean, Hondarribian, non Creacity proiektuaren zabalkundea egin baitzen.

Uda ondoren, urriaren 9tik 11ra, hiru hiriak **Urban sketchers** artisten euskarri bihurtu ziren. Estatuko eta nazioarteko artista grafiko ospetsu horiek etorkizuneko erakusketa baterako marraztu zuten hiru hirietan. Erakusketa 2017an egingen da. Eta, azaroan, Iruñeko 18 establezimenduk **Vermuteando** programan parte hartu zuten. Azaroaren 5etik 27ra, 54 arte-ekintza egin ziren, Iruñeko bermut-ordua girotzeko, eta Hondarribian ere antzeko zerbitzu egin zen. Quiero teatro taldea arduratu zen magia, antzerkia, klown eta dantza koordinatzeaz. Saioetan, zazpi taldek parte hartu zuten.

Dibulgazioa: App-a eta informazio-foiletoak

Udalak, azoka eta ekitaldietan parte hartzeaz gain, 2016an **eduki turistikoen edizioa mantendu zuen, hala eduki digitaletan nola euskarri tradizionaletan.**

2016an, urtero bezala, App mugikor bat eguneratu eta hobetu zen, batez ere sanferminetan erabiltzen dena. Geoactio, Artworks eta Welldone enpresek gonbidapen bidez parte hartu zuten lizitazioan, baina, azkenean, Geoactiok besterik ez zuen proposamena aurkeztu; 4.500 euroan, zehazki. Gauza berrien artean, jaigune berriak kokatu ziren eta su artifizialen balorazioa egiteko aukera, App bera erabiliz. Emaizarekin bat, **Sanfermin Iruña** aplikazioak **6.623 deskarga berri** izan zituen IOSen eta Androiden. Horrek esan nahi du guztira 31.675 aldiz deskargatu dela App-a 2014an hasi zenetik.

2016an, Turismo Bulegoan 54.100 plano, Iruñeko Ibilaldiei buruzko 8.150 foileto eta Gotorleku txikiaren gaineko 5.875 foileto banatu ziren, gutxi gorabehera, guztiak ere sei hizkuntzatan; gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez, frantsesez, alemanez eta italieraz. Udalaren euskarri horiekin batera, Nafarroako Gobernuko beste argitalpen batzuetako 18.974 ale ere banatu ziren. **Turismo Bulegoa** bera **hiria sustatzeko erakusleiho** bihurtu zen, kanpoko zutabeetan irudiak paratu eta mezuak idatzi baitziren, 4 hilean behin aldatzen direnak. Brandok enpresa arduratu zen diseinuaz.

Iruñean, aurrez aurreko arreta hori eskaintzeaz gain, 2016an Udalak komunikazio elkarreragilea sortu zuen azoketan, eta *online* marketin-ekintzak ere bai. Era berean, **MICE katalogoa nabigagarri bihurtu** zen, eta, 601 Audiovisuales enpresarekin, **jomuga aurkezteko bideo** bat egin zen, 6.000 euroko aurrekontua izan zuena. Creacity-ren barnean, ikus-entzunezko bat ere aurkeztu zen: **Tengo algo que contarte, contigo– urekin–avec toi** (4:02' Full HD; aurrekontua: 6.000 euro / ekoizpena: Iñaki Alforja).

Donejakue Bideko erromesak hartzeko zerbitzuak

Jesus eta Mariaren turismo-aterpetxea

Jesus eta Maria erromesen turismo-aterpetxea (Compañía kalea, 4) 2007ko abuztuan zabaldu zen, eta Aspace Fundazioak kudeatzen du. 2016ko maiatzetik, **zerbitzu-gutun** bat dauka, hau da, herritarrekiko konpromiso zehatz bat, hemen kontsultagai dagoena: www.pamplona.es. Beste informazio batzuen artean, hartan esaten da aterpetxeak 112 ohe eskaintzen dituela egunero eta azaltzen da instalazioaren ekipamendua: arropa garbitzeko gela, 3 garbigailurekin eta 2 lehorgailurekin, sukalde hornitua, egongela eta internet-zerbitzua, bai eta funtzionamendu-ordutegiak zehaztu ere. 2016an, lurzoruak **mantendu eta hobetzeko lanak** egin ziren, bai eta hezetasunak kentzeko lanak ere, eta eztabaida bat geratu zen egiteko, formalki turismo-aterpetxearen izaera kenduko ote zaion berriz ere erromesendako aterpetxea izateko, hasieran bezala.

Guztira, **20.198 erromesek** hartu zuten ostatu Donejakue Bideko erromesendako aterpetxe honetan, eta bideko aterpetxeetan ohikoak diren erabilera eta praktikekin bat funtzionatzen du. Bisitari guztietatik, % 75 atzerritarrak ziren (15.190 lagun, hain zuzen). Hau da, 2015ean baino % 3 gehiago, urte hartan erromes atzerritarrak 14.757 izan baitziren. Abuztua eta maiatza izan ziren jendetsuenak 2016an, 3.133 eta 3.091 bisitari izan baitziren, hurrenez hurren. Urtarrilean iritsi zen jenderik gutxien: 204 bisitari, hain zuzen. Nazionalitateen arabera, talde ugariak Italia, Korea, AEB, Frantzia eta Alemania izan ziren, pisuaren hurrenkeran.

Jesus eta Maria erromesen aterpetxea	
Urtea	Erromes-kopurua
2012	19.341
2013	21.555
2014	20.890
2015	20.534
2016	20.198

Aterpetxea urte osoan dago zabalik, sanferminetan (uztailaren 5etik 15era bitarte) izan ezik; abenduaren 23tik aurrera ere ixten da, Errege Egunaren ondoko lehen astelehenera arte. Ordutegia: eguerdiko 12:00etatik 23:00etara; lo egiten duten erromesek, dena den, goizeko 8etan utzi behar dute aterpetxea.

Paderborn erromesen aterpetxea

Beste aterpetxe bat ere dago erromesen eskura 2006az geroztik, eta Iruñeko Udalak Donejakue Bidearen Lagunak-Paderborneko Donejakue Ermandadea elkarrekin egin duen lankidetzaren bidez dago kudeatua. Sinatutako bigarren hitzarmenari esker (2016an sinatu zen) dago zabalik aterpetxea. 2016an, 5.346 erromesek hartu zuten ostatu aterpetxe horretan.

Iraizoz txaletean kokatua, 26 ohe ditu logela bereizietan, eta, horrez gain, gosariak emateko egongela, eta sukalde bat, garbigailuarekin eta lehorgailuarekin. Paderborneko aterpetxeako ospitalariak arduratzen dira aterpetxeaz. Halaber, instalazioak garbitu, eta garbiketa-gastuak ordaindu eta mantentze-lan arruntak egiten dituzte. Aterpetxea martxoaren 1ean irekitzen da, eta urriaren bukaerara arte ematen du zerbitzua. Abuztuan eta irailean izaten da eskaririk handiena, baina hurbiletik maiatza eta ekaina heldu dira.

Turismoko Argibide Zerbitzua

Iruñeko Turismo Bulegoa

Tokiko Ekonomia Jasangarriko Alorraren eskumenen artean daude neurriak hartzea eta jarduketak egitea turismoa Iruñean planifikatu, bultzatu, dinamizatu eta sustatzeko. Iruñeko Turismo Bulegoa 2014tik aurrera dago zabalik, eta funtsezkoa da Udalaren turismo-kudeaketan, baita Nafarroakoan ere. Izan ere, 2015etik aurrera, Iruñeko Bulegoak Nafarroako Turismo Bulegoaren eginkizunak hartu zituen bere gain, urtero berritzen den hitzarmen baten bidez.

Otsailean, udal-zerbitzu horretako arreta-kontratua **Dinamic Imizcoz Servicios Culturales S.L.U** enpresari esleitu zitzaion, 143.023 euroan, hau da, eginkizun hori bera egiten ari zen enpresari. Urte osoan dago zabalik (ordutegi desberdinetan), eta 8 langile aritu ziren lanean, hau da, 2015ean baino bi gehiago; une jakin batzuetan, dena den, 10 ere ziren turismo arloko berriemaile kontratatatuak. Iruñera datorren jendeak hainbat hizkuntzatan jasoko du arreta, hala nola gaztelaniaz, euskaraz, katalanez, ingelesez, frantsesez, italieraz, alemanez eta errusieraz.

2016an, 157.354 turista artatu zituzten (2015ean baino % 12,9 gehiago) eta **63.655etik gora gestio** egin ziren (aurreko urtean baino % 27,5 gehiago). Gehienak Espainiakoak ziren; bereziki, Madrilgoak (15.847 bisitari) eta Bartzelonakoak (13.470 bisitari). Berriz ere, Nafarroako turistak dira nabarmentzekoak, 2016an 11.470 pertsona izan baitziren, eta, aurreko urtean, berriz, 7.873. Horrela, 2016an, turista nazionalak guztien % 64,1 izan ziren, hots, 2015ean baino 2,8 puntu gehiago.

Bulegora joandako nazioarteko bisitarien artean, gehienak frantsesak izan ziren, nazionalitate horrek izan baitzuen lekurik handiena hiriko turismoan, 17.514 izan baitziren, hau da, 2015ean baino 2.200 gehiago. Nazionalitate alemaneko jende kopuru nabarmena ere etorri zen, 4. postutik 2.era igo baitzen bisitarien sailkapenean; guztira, 5.684 lagun, estatubatuarren gainetik, iparramerikarrak 3. tokian gelditu baitziren (4.910 inguru, hau da, 2015ean baino 800 turista inguru gutxiago).

Guztira	2016	2015	%	2014
Estatukoak	100.976	82.179	+ % 16	71.624
Atzerritarrak	65.378	51.769	+ % 7,8	44.360
Artatutako turistak	157.354	133.948	+ % 12,9	115.984
Zenbat arreta egin diren	63.655	49.904	+ % 27,5	37.439

Turismo Bulegoa, sanferminetako egunetan, 2015eko antzeko kopuruetan ibili zen: 7.531 turista 2016an, eta aurreko urtean, aldiz, 7.542. 2015. urtearekin alderatuta, % 8 turista espainiar gehiago etorri zen Iruñera festetan, eta % 9,2 bisitari atzeritar gutxiago egun berberetan (zenbaki absolutuetan, 4.296 eta 3.235 turista izan ziren, hurrenez hurren).

Turismo Bulegoaren eginkizunetako bat bisitariei informazioa ematea da arlo askori buruz: Iruñeko baliabide monumental, natural eta historikoez; ostatu-, jatetxe- eta jarduera-eskaintzaz; garraio- eta komunikazio-zerbitzuez edota jomugari eta inguruneari buruzko edozein datu interesgarritz. Baina, horrez gain, hiriko merkataritzarekin lotura duten jardueren berri eman (azokak, hitzordu interesgarriak, etab.) eta argitalpenak saltzen dira, bai eta sarrerak ere, Udalak erabakitzen duen jardueretarako.

Interpretazio Zentroa, bisitaria artatzeko zerbitzuak.

2016an, 2.602 lagunek bisitatu zuten Iruñeko Gotorlekuen Interpretazio Zentroa/San Bartolome gotorleku txikia. Hilerik jendetsuena apirila izan zen, 373 pertsona bertaratu baitziren. Abenduan ibili zen, ordea, jenderik gutxien: 100 lagun, zehazki. Bisitarien % 68,1 espainiarrak izan ziren; horien artean, nafarrak eta Madril eta Bartzelonatik etorritakoak dira nabarmentzekoak. Nazioarteko 824 bisitarietatik, % 20,3 frantsesak izan ziren; gero, britainiarrak (% 10,7) eta iparramerikarrak (% 10,3).

2011ko martxoan ireki zen, antzinako bastioi militar batean, hots, San Bartolome gotorleku aurreratuan; ibai gaineko muino batean kokatua dago, Arrieta kalean, Aralar kalearekiko izkinan. Museo-xedea du orientabide elkarreragilearen bidez, hiriaren historiaren gaineko ulerkuntza orokorra errazteko, Iruñeko gotorleku-barrutiaren garrantzia nabarmentzeko eta ibilaldiaren abiapuntua izateko.

Interpretazio Zentroa	
Urtea	Bisitari-kopurua
2012	4.148*
2013	3.461
2014	3.921
2015	3.476
2016	2.602

Dinamic Imízcoz Servicios Culturales S.L.U enpresa arduratzen da Interpretazio Zentroa kudeatu eta artatzeaz, 2011ko uztailaren 1az geroztik. 2015ean, kontratuaren aurrekontuak 32.064 euro jo zuen (BEZa barne).